

EPAILETZA EUSKALDUNA: HIZKUNTZ ETA PROZESU ESKUBIDEAK

El poder judicial de Bizcaya está separado del administrativo y lo ejerce su Señor como magistrado supremo de la tierra, que hoy es el rey de España. De consiguiente tan sólo él nombra a los jueces principales del país, que antes eran los merinos y ahora los corregidores, para que ejerzan o más bien le sustituyan en la magistratura de todos los negocios contenciosos que se suscitan entre los moradores de Bizcaya, pero con la circunstancia de que han de ser nacidos 'allende del Ebro' según el Fuero; esto es, de fuera de las provincias bascongadas, a fin de evitar que puedan faltar a la justicia por relaciones e intereses de familia.

J.A. de Zamacola, *Historia de las naciones bascas*

Ez dut inoiz atsegin izan euskara erabiltzea metahizkuntza baten gisa, hauxe da, euskaraz aritzea hizkuntzari berari eta bere biziraupen edo garapenari buruz, eta edozertarako hizkuntza izan behar duela uste dudanez, niri, ezer egokitzeotan, orain arte jorratu gabeko zuzenbidearen gaineko euskarazko ekarpenaren bat dagokidala deritzot. Esaten da hizkuntza gizakien arteko komunikazio tresna dela, baina horretan ez datza hizkuntzaren berezkoa, gogamenaren adierazpidea izatean baizik, eta legelariok ohiki ez daukagu bitartekoa edo baliabidea aztertzeke benetako, baina bai, eta Euskadin euskaraz, giza ondare intelektualaren zati zehatz bate-

an jarduteko. Batzuk euskararen desagertzea edo fosilizazioaren aldekoak beti izan dira, bestetarik pasadizozko mintzaira xehe eta baserriartuaren zaleak, eta zalantzazkoa da euskara maila orotako berbeta nahi dugunok gehienak garenentz gaur egun ere. Horrexegatik garrantzitsua da maila jaso ezohiko batean, zuzenbidea kasu, euskara hutsez lan egiten saiatzea, hizkuntzaren jatorria eta teknolekto juridikoaren zuzentasunarekiko eskrupulua baztertuz, erabileratik ezaguera sorrarazten eta ez alderantziz, jakintza sakon eta teorizazio burutsu batetik erabilera sortzeari ekiten, azken hau prozesu motelago eta ez seguruagoa baita.

Dena dela, aitortu behar da ezer gutxi erabiltzen dela euskara zuzenbidearen esparru errealean, eta horra sarrarazteko agertzen diren zailtasunak serioena Justizia Administrazioan erabat falta zaion tokian datza, eta elebitasunaren faltaren barnean oinarri-oinarrizkoa epaileen erdalduntasun erabatekoa. Hori horrela, legeafer bat dago koofizialtasunarekin Justizia Administrazioan, eta alor honetan euskaldunen hizkuntza-eskubideak urratzen direla ohartaraztera zalantza urriekin bat etor gaitzke, baina prozesuaren helburua ez da eskubide horien bermatzea –auzigaia hori ez denean, jakina–, eta urratze horrek ez luke erabileraren aldeko borroka geldiarazi behar izango, diglosia ez baitu legediak eragiten ez eta nekez “per se” ekiditen.

Hauxe ardura eta hurrengo lerroen xedea.

Bernardo Atxagak maisuki sailkatu ditu hiru multzotan Euskal Herriko herritarrak euskara eta euskal kulturari buruzko jarrera dela-eta: antipatikoak, sinpatikoak eta patetikoak. Antipatikoek baztertzen dute euskara eta euskaldungoa euren bizitzetatik, eta gehienetara jota onartzen dute geure hizkuntza arkeologia-ekai bitxia bezalakoa, eguneroko bizitzan folklore paperean jokatzeko. Tamalez, Euskadin epaile herrikide gutxi izanik, haiengandik mordoa omen da antipatikoa. Patetikoak, aldiz, euskara ikasi, jakin eta edertu ez ezik, bizi ere egin nahi dute euskaraz, edo zertarako mintzabidea, goi mailako hizkuntza legez, normalizatugabeko hizkuntza gutxiagotua izan arren, Frantzia eta Espainian dauden muga politikoen abstrakzioa eginez. Euskaldun sinpatikoak

euskara maite dute benetan, eta euren epelean inbidia zintzoa dute patetikoek militantismoarekiko, baina ez dute sakrifizio bideragarri-rik ikusten euskara hutsez bizitzeko afanean, eta erdararekin parekatze-prozesu sozialean derrigorrezko ahaleginetan oinarritu beharrean pizgarri baikorretan oinarritu behar delakoan daude. Hurrengo berben egilea euskaldun sinpatikoa da seguruen. Ohartu behar da patetismoak pertsonengan sentimendu sakonak, tristeak gehienbat, pizteko kalitateari datzekio, eta ez du, lerrakuntza semantiko okerretik datorrenaren kontra –filmetako ingelesaren itzulpenaren eraginez, apika–, erridikuluaren parekorik ezer esan nahi. Bestetik, sinpatiak pertsonen arteko lotura afektiboa eramaten duena da, besteen sentimenduak norberarenak balira bezala bizitzera eramanez. Ohartu ere egitekoa da, jarrera hauek ez dira nahastu behar ideologia politikoekin, nahiz eta “euskal antipatia” nekez aurkitu dezakegu kontserbadurismo edo liberalismo –behinola sozialismo– espainiar eta frantziarretik kanpo, eta “euskal patetismoa” abertzalego zati baten atributua omen da.

Nire mezua bost zatitan egituratuko dut: lehenik jarrerak laburbiltzeko (1); bigarrenaz konstituzio doktrina zertan den azalduko duena (2); gero nire hitzen mamia eta izenburua eman zuena: hizkuntza eta prozesu eskubideen bereizmena (3); eta laugarrenez neronen proposamena “impasetik” irten eta euskararen erantzuna auzitegien titularrengandik hobetu aldera (4).

1. EPAILETZA ETA EUSKARA: JARRERAK

Epaileen egikaritzari buruz tokian tokiko Autonomia-Estatutuek aintzatesten dituen hizkuntz koofizialak kontu egiterakotan, hainbat zuzenbidezko eztabaidetan gertatu ohi den legez, muturreko jarrerak agertzen dira, alde bateko zein aurkako, eta ondorioz, hiru ikuspegi mota, tartekoekin –tartean bat baino gehiago izanik, ñabarduren arabera–.

Xinplea bezain grafikoa denez, narratzaile ospetsuak ohartarazi zigun sailketarekin dihardut, euskara eta Euskadin kokaturik hausnarketa, ez gainontzeko hizkuntza koofizial edo errealtateetan, eta beti epaileak aztergai, ez gainontzeko operadoreak, fiskalak edo idazkari judizialak kasu.

1.1. Jarrera antipatikoa

Lehenengo jarrerak zera aldarrikatzen du: Euskadiko Autonomiadun Elkargoan Aginte Judizialaren kideok, funtzionarioek ez bezala, gaztelania eta euskararen koofizialtasunaren eskakizunei –direnak direnei– atxikimena emateko eginbeharrik ez daukagu.

Iritzi horren biribiltasunari erakargarria deritzo epaile askok, eta juridikoa ez den ikasketa berezi bat haien “statusean” sarrarazteko ahaleginik jo nahi ez dutenentzat, bere errazean, azaltzeko modukoagoa gainontzeko hautakizunak baino. Epaileok, esaten da, estatu botere gisa –herriak hautagabe baina Konstituzioak legitimatuz osatua–, parlamentari eta ministroekin jazoten den parean, horrela nahi badute, askatasun osoz, mintzaira ofizial orokorreko elebakar hutsak izan gaitzkeela. Hain zuzen ere, epaileen zeregina jurisdikzio-ahalgoaren egikaritza hutsarekin berdintzen duen tesian –botere judizialeko kide kontserbatzaileei betidanik hain laz-tana zaien tesian–, legegile eta gobernu-ahalgoen ordezkariak egiten duten bezalatsu, gaztelaniaz gain beste espainiar hizkuntzaren ezagutzara iristen badira euren jendaurreko irudia eta kultura hobetzearren edo euren alderdiek bultzatzen duten jokabideari lotzearren izango da, baina ez karguak dakarren betepena delako.

Espainiako legeria irakurtzen badugu epaileok Euskadin gure lana gauzatzeko euskara jakitearen ezelango beharrik ez dugulako konklusioa itzalpetuta dagoenera heldu gaitzke. Soilik BJLOko 341. art.an, lanpostu-hornikuntzaren atalean, agertzen da –Elkargoko Foru Zuzenbidearekin bat–, alde batetik, zehazteke balioetsi ahal izateko meritu gisa diskreziozko izendapenetan –Justizia Auzitegi Nagusi eta Probintzi Entzutegetako Presidenteentzako postuak–, eta bestetik, oro har, epaile karreraren igoera edo lekualdaketa barne-lehiaketetarako lehenespenezko meritu gisa, baloratzeko irizpideen finkatzea Araudiari igorrita. Dena dela, jakin behar denez, arautze prozesua eztabaidatua izan da, eta behin baino gehiagotan joan da AGeko Administrazioerikiko Salara, azkenean aintzakotzat hartuz AGeko III Salako 1999.eko urriaren 15ean eta 21ean emandako sententzietan, 1995.eko ekainaren 7ko 1/95 Araudia, Epaile Karrerakoaren afera honi buruzko edukia (108-114.

art.ak) –eraberritu zuena AJKaren Osoko Bilkurak 1998.eko otsailaren 25an hartutako Erabakiak–. Hiru dira ezaugarri garrantzitsuak, bideragarritasun aldetik absurdo eta murriztasunaren ildotetan: Euskararen merituen aintzinasun epealdiaren gehikuntza dakar eskalafoian –txikia, edonola ere, juezentzat urtebete, magistratuentzat pertsonabakarreko organuetan bi urte, eta organo bilduetan hiru urte–, eta beraz, zentzugabeki, lanpostuarekin inolako lotura barik, karreran abantailatuz Erkidego Autonomoetan soil-soilki (a); Hizkuntzaren ezagutza aintzat hartu behar du AJKak interesdunak hala eskatuta, eta Euskadiko Komunitatearentzat onartu duen maila Administrazio Orokorrerako 2. hizkuntza-eskakizunarena izan da –EGA 3. eskakizunaren baliokidea da–, eta orduan ezin mugatuago (b); Agi denez, gaur egun lehenespenezko merituen eskalafoi arruntan bakarrik jokatuko du, eta ez hainbeste izatera ailegatu diren espezializazioen araberrako –Administrazioarekiko, Lan-arloko, Merkataritzako, Adingabeeneko, Emakumeen aurkako Indarkeriareneko, eta abarreko– eskalafoietan (c).

1.2. Jarrera patetikoa

Kontrako muturrean, batzuek –esaterako, “Euskal Herrian Euskaraz”, “Abokatuen Bazkunetako Euskara Batzordeak”, “Justizia Euskaraz”–, nonbait hor, euskararen ezaguera nahikoa Euskadiko epaileen gaikuntza profesionalaren alde aurretiko betepena dela sutsuki baieztatzen dute. Hori dela eta, zenbaitetan aurkeztu da epaileen ezespina erabateko erdaldunak izateagatik, edo auzipeturen batek euskaraz ari gura zuenean epaileentzako itzulzailearen ukoa agertu da. Tesia da herritar bakoitzaren –alderdia, hirugarrena, edo legelaria– aukerako hizkuntz ofizialean, eta horregatik euskaraz, jarduteko zeharo kapaz izan behar dutela epaile guztiek Autonomia Elkargoan.

Horrela izango balitz, ez dago dudarik denek hizkuntza esku-bideak zeharo bermatuta izango lirakekeela epaile babes eraginkorraren aurrean, eta “desideratum” baten moduan taxuzkoa dirudi.

Ez dakit epaileen artean muturreko iritzi bera daukan inor denik, epaileen betekizun hori izango balitz, ez bailuke bat-batean

bete beharko, era mailakatuan baino, eta elebitasun ofizialarekin batera botere publikoa haragitzen dutenen elebitasun erreala lortzen den heinean, elebakartasunetik elebitasunerako bidea arian-arian kontua baita. Nolanahi ere, betekizuna ez dauka errotzerik indarreango legetzan –Konstituzioaren ikuspuntua gero aztertuko dugu, labur-labur–, eta norbanako hizkuntz eskubideak epaileok aterpetu behar dugun defentsa eskubidearekin nahasteak kutsatzen du iritzi honen sustapena.

Ezin esan gabe iragan, dena dela, jarrera honek indar berezi berria hartu izan duela 2001.eko irailaren 15etik, EAOak Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna berresteko tresna argitaratu zuenetik, 1992.eko azaroaren 5ean Estrasburgon egin zen gutuna, alegia, eta Konstituzioko 96. art.ak ezarritakoarekin bat, espainiar barne-antolamendu juridikoaren zatia izatera bihurtuta, 10.2. art.ak esleitzen duen interpretatzeko balioaren kalterik gabe. Euskal Autonomia Erkidegoan euskara Gutun horren Hitzaurreak Europako hizkuntza gutxiagotu historiko ofiziala aldarrikatuz gero, 9. art.aren arabera estatu-alderdiek zelanbaiteko konpromisoa hartzen dute prozeduretan jurisdikzio-organoek, alderdietako batek hala eskaturik, eskualde edo guttinen hizkuntzaz gauzatu dutela (“[they] conduct” ingelesez, “lleven” gaztelaniaz).

1.3. Jarrera sinpatikoa

Erdiko jarrerek, beti ere, asmatzeko ereti gehiago dute errealitateari utsita, eta epailetzaren gutxiengoak defendatzen ditu, litsak litsa, muturrekoei aurkaratuz.

Euskalduntzeko epaileok inolako beteharrik ez dugulako tesiaren aurrean, gure funtzioa ez dela bakarrik ahalgo bat egikaritzea azpimarratu behar da, herri-zerbitzu bat eskaintzea ere baizik. Txanpon beraren aurkia eta ifrentzua dira epaile banakako jurisdikzio-ahalgoa eta taldeko –ez epaileena bakarrik– justiziagintza. Gainera, hiritargoarekin zuzenean elkar erlazionatu behar diren zerbitzu publikoetatik bat da justiziagintza, eta epaileok artez-arte harremanetan sartzeko gara herritarrekin, prokuradore eta abokatuarekin, baita aditu, lekuko eta alderdiekin ere.

Orduan, hala nola herritarrekin zuzeneko harremanak dituzten zerbitzu publikoek, udal, lurralde edo autonomia-administrazioek, zein estatu-administrazio periferiokoek, justiziagintzan talde-lanaren buruek ere, epaileek, jurisdikzio-ahalgoa herri administrazio bati ez dagokion arren, mailakako egokieraren ahalegin arrazoitsuetan barna, eta herritarrentzako onura errealak aintzat hartuz, elebitasunaren etorkizuna bermatu behar dute. Gauza da, KAk emaniko 82/1986 edo 46/1991 epaiek esan zuten legez, hizkuntza batentzat ofizialtasuna horixe dakarrela: *“bere errealitatea eta gizarte-fenomeno bezala duen pisua edozein dela ere, botere publikoek komunikaziorako ohiko tresnatzat aitortzen dutenean, barne komunikaziorako, botere publikoen artekorako, zein subjektu pribatuekin dituzten harremanetarako, balio eta ondore juridiko osoekin”* (2. Oin.); edo KAk emaniko 337/1994 epaiaren iritziz *“botere publikoek, bakoitzaren eskumen-eremuan, bermatu egin behar dute Autonomia-Erkidegoko hizkuntza ofizialeko bat erabiltzeagatik bereizkeriarik ez izateko denok daukagun eskubidea”* (6. Oin.)

Baina berehala epaile guztiak Euskadin euskaldunak izan beharko zirelako jarrera aitzinean, kontzeptu-eragozpen bi agerian daude:

A) Aurreratu dudan bezala, hizkuntza koofizialtasunaren betebeharrak ez dakar berehalakotasunik, mailakako prozesua bai-zik estatu-hizkuntza eta herri-hizkuntza berdintzeko ildoan goldatuz. Dakarrena da haztapen bat beharriaren eta egokitzapen erritmoaren artean, kontuan hartuz ezarpen soziala eta eskari-zerbitzu publikoari esijentzia-bereziaren tamaina.

B) Epaile-euskara teknolekto juridikoaren zati garrantzitsu eta mugierazlea da, bi arazorekin aurre egiten duena:

B.1) Alde batetik, hasiberria delako.

Erromantzeetatik datozen auzo-erdera nagusi (gaztelania edo frantsesa) eta berbeta gutxituek (katalana eta galegoa) ez bezala, euskarak ez du tradizio izpirik izan zuzenbidean, latina eta gaztelania izan baitugu zuzenbidearen hizkera Euskadin orain dela mende laurdenera arte –1936-7.eko hilabete batzuk aparte–. Eta

euskara juridikoa teknolektokumea bada, oro har, epaile-mintzoa jaioberri-berria.

B.2) Bestaldetik, normalizatu barik dirauen hizkuntza batean oinarritutako teknolektoa delako.

Teknolekto guztiek inbertsonaltasuna dute ezaugarri, eta hortara funtzionaltasun eta formaltasuna behar dute. Funtzionalak izateko, zuzenak ez bakarrik, arras zehatzak eta argiak gainera izateko beharra daukate. Eta epaile-mintzoak, teknolekto bezala, gainontzetatik bereizita, ez du terminologia “ad hoc” erabiltzen, baizik eta hizkuntzaren estandarren dauden terminoak esanahi aldatuekin, termino teknikoak sortuz ez berbetan ezpada bihurketa semantikoetan. Azkenik, epaile-hizkeraren formaltasunak, teknolekto juridikoan nabaria baino nabariago, ez dio euskarari jatortasunik eskatzen baizik eta maila jaso, jantzia eta kutsu zaharkitu bat urruntasuna markatzeko ebazpenen egile eta igorleengandik hartzaileenganaino.

Errazki konpreni daitekeenez, euskarak azken urteetan urrats handiak emanda ere, oraindino normalkuntza osoa burutu ez duen mintzaira izanik, epaileok prestakuntza linguistiko berezirik ez dugunez, gaztelaniaz aferatsu ez dugun hainbeste kontu aurkituko dugu euskaraz, euskaldun arruntok edo erdaldunak euskalduntze-koan.

Bapateko euskalduntze unibertsalaren kaltetan kontzeptuzkoa ez den gainerako eragozpena datorkigu epaile karreran gorpuzten den jurisdikzio-batasun zatiezinetik, haren gaurko konposaketarekin eta estatutuaren zurruntasunarekin.

2. KONSTITUZIO DOKTRINAREN “STATU QUO”

Legedian euskararekiko “sinpatiarik” aurkitzen ez badugu, epaile-entzat karreran igotzeko kitzikagarri nemiño batzuetatik kanpo, aitortu beharra daukagu Konstituzioan aintzatesten duen hizkuntz koofizaltasunaren esangurak eremu honetan noraino eraman behar izango gaituen, legegintzan edo legeen interpretazioan gal-

detzean, Konstituzio Auzitegiak erantzun digu jarrera antipatikoari atxikita bete-betean.

Oldozketaren simetria hirukuna gordetzearren, hiru zedarrri ikusiko ditugu.

2.1. Itzalperik eza

Lehenengo saioan, zigor arloko epaiketan hobenduriak interpretaria errefusatu zuela medio –konfiantzazko abokatuak horri eutsirik–, itzalpeko helegitea “a limine” ebatzia zen probidentzia bidez, hain zuzen ere, KAK 1997.eko urriaren 1ean emandakoa. Orduan erabaki zen Konstituzioan ez zegoela inondik inora manurik epaile-organokideak behartzen zituztenik egokiro ezagutzera prozesu-alderdiek eta defentsariak adierazteko nahi zuten hizkuntza koofiziala, ez eta aintzatespenik legetza arruntean. Horratio, bi mintzaira ofizialdun Autonomia-Erkidegoko herritarren hizkuntz eskubideek, ez dituzte betebeharrak berezirik erakartzen esparru honetan epaileentzat Erkidegoan diharduten prozesuetan, eta ondorioz, egitate bidez erdaratzaile bat inposatzen da.

Egia da BJLOko 231.4. art.ak, 16/1994 LOaz gero, erdarara ofiziozko itzulpenen behartasunik ez aurreikustean kasu orotan, ez dakarkiela ere epaileei Autonomia-Erkidegoen hizkuntza ofiziala jakiteko beharkizunik, beraietan kokaturiko organo judizialeko lanpostuak bete nahi baldin badituzte (“...ez haren eduki espresutik, ez, hura interpretatuz, inferitutako eran, ezin da zentzu horretan inposaketarik ondorioztatu, ez eta inplizituki ere”, KAK –Osokoa– emaniko 2000.eko apirilaren 13ko 105/2000 epaiaren berbetan). Baina jakin gabe geratu ginen orduan, zertan aurkiak, oinarrizko eskubide batek, hizkuntza koofizialean prozesuan aritzeko itzulpenik gabe herritarrak duenak –Konstituzioko 3.2. art.aren funtsa– ez daukan, ez orain ez sekula, bere ifrentzua, hain zuzen, ulertu ahal izan diezaioten epaileek Erkidegoan lan egin eta bertako hizkuntza koofiziala jakiteko betebeharra.

Lehenago irakurria genuen KAK –Osokoa– 1990.eko martxoaren 29an emandako 52/1990 epaian, epaile-boterekideen gatzela-

nia erabiltzeko, eta itzulpenak hizkuntz koofizialetik egiteko beharrak –konstituzionaltasuaren blokeak diseinuarekin koherentea, KAren ulerkuntzan– zertan zetzan: “*hiritar guztiek defentsagabezia ez jasateko gozatzan duten eskubidea EKko 24. art.ak aurreikusten duenez gaztelania jakiteko betebeharrarekin (EKko 3.1. art.) korapilatzen da, gainerako espainiar mintzairei betebeharrak hori ez dagokielarik*” (41. oin.). Baina ez zen korapilo horren zergatia argitzen.

2.2. Inkonstituzionaltasunaren auzirik eza

Esan berri den nolabaiteko opakotasunetik irteteko abagune aparta, KAK –Osokoa– 2005.eko apirilaren 19an emandako 166/2005 autoarekin aurkeztu zen. Argibideak konbentzitu ez dit baina.

Auto horrek ebatzi zuen Bizkaiko Probintzia-Entzuteagiko 1. Atalag sustatutako –2004.eko urriaren 1eko bere autoan– inkonstituzionaltasun auzia, BJLOko 231. art.ari buruz, ez onartzerik.

Antzeko arazo batean –zigor-arloko Epaitegiaren aurrean auziperatuak itzultzailea arbuiatzearekin bat ospa egitea–, berriro KAK “in limine” ez du mamiaz erabakirik ematen (KALOKo 37.1. art.), nahiz kasu honetan, prozedura-zioak direla eta, auto eta ez probidentzia baten bitartez.

KAaren 166/2005 autoak badauka, nire iritziz, berebiziko garrantzia, eta ohargaberik igaro bide baita, adoretzen ditut “Justizia Euskarazen” bazkideak, kalitatezko iruzkina egiteko. Nik neuk egitea ez zait dotore iruditzen, uzia planteatu zuen epaimahaikidea izanda.

Dena dela, esango dut arrazoitzeko ahaleginen bat nabaritzen da –eskasa, kontuan hartu behar baita aurretiko onartezintasuna agerikotik datorrela: inkonstituzionaltasuna “*argiki funsgabea*”–, baina anabasean, nire aburuz.

BJOLko 231. art.ari buruzko konstituzioaren aurkako zalantzak hiru fronte zeukan auzitan:

1. Konstituzioaren 3.2. art.aren eredurako Hizkuntz koofizialtasuna aipatu dudan Lurraldeetako edo Esparru Urriko Hizkuntzen Europar Gutunaren 9.1.a).i) art.aren estatu-konpromisoaren argipean.

Egia esan, Gutun horretan hizkuntz urritu ofizialean prozesua gauzatzearen konpromisoa, bai zigor bai zibil arloetan, estatu alderdiek haien gain hartzen dute, "zeintzuk epaile-agintarien mugabarruak izan eta horietan bizi eta lurraldeetako edo urritutako mintzoetan ari den pertsonen kopuruak datozen neurri bereziak justifikatzen duenean, mintzaira horien egoera nolakoa diren, baldin eta epaileak ez baditu justizia administrazio onerako oztopotzat jotzen parrafoak [9.1. art.] eskaintzen dituen ahalbideen erabilera...". Horregatik kokatu dut jarrera patetikoaren aldean Gutunari deitzea, guztiz aurkakoa izango balitz hobesten den doktrina –KAK nahiago duen legez– erraza izango litzaiguke esatea –KAK dioen legez– BJLOko 231. art.ak justizia administrazio onerako aurretiazko ponderazioa arautzen duela.

Gutunean konpromiso estatalaren neurrietarako baldintzak, guztiarekin ere, hiztunen kopurua, hizkuntzaren egoera, eta justizia administrazioaren ona dira, baina epailetzaren hizkuntz ezaguerak azken honekin bakarrik zerikusirik izan dezaketelarik, ez bide da onusteko konpromisorik oztopoa finkatzea estatuak berak konpondu ahal eta nahi ez duen ezaguera horien sustapenaren faltan.

2. Konstituzioaren 24.2. art.ak babesten duen "due process of Law", hurrentasun printzipioaren eskaerarekin konektatuta, KAK 2002.eko irailaren 18an emaniko 167/2002 epaiatz gero –zigor-arloko bigarren auzialdirako mugak kondenatzeko lekuko edo adituen froga dela eta– berretsi zen tesi hertsian, hauxe da, pertsona-frogaiturrien eta epaileen artean bitartekaririk egoteko erabateko ukoarena.

3. Zein Autonomia-Erkidegoren lurraldetan izan eta horretako hizkuntza ofiziala erabiltzeko herritarraren eskubideak, eta Konstituzioaren 14. art.ak xedatzen duen bereizkeriaren debekua, justiziagintza prestazio-jarduera izanik, konstituzio-botere estataletik eratorri arren.

Bigarren eta hirugarren puntuak sinpatikoagoak dira, BJLOko 231. art. bere horretan uzteak hizkuntz eskubideen urraketa ekar diezaikeela, justiziagintzan gaztelaniaz beste hizkuntzetako edozeinetan eskubide hori egikaritu asmo dutenei, haien herrikideek izango lituzketen berdintasun-baldintzetan behintzat, eta prozesuaren hurrentasun abiaburua ezarriz egikarituko badira, behintzat. Epaille euskaldun aski barik, arian-arian lortu arren, prozesu eskubideak ez ditu beti hautsiko legeak, baina zigor-arloko kondenatzeko anitzetan bai, eta berdintasuna ere ez du berez baztertuko, baina noiz arte zehazteke gaurko egoera eta araubideari eusteak bai, azkenik, Konstituzioaren 3.2. art.ak aintzatetsitako Euskadiko euskaldunen hizkuntz eskubideen edukia hustea dakarrela, materializaezina bilakatuz, eta “de facto” auzitegi-tan eskura duten ahalbide bakarra gaztelaniaz aritzera derrigortuz.

KAk aplikatzen duen irizpidea argudio horiek bertan behera uzteko, “komunztadura praktikoaren abiaburua” euskaratuko dudana, ezaguna da eta esangura zera duena: haztapenaren terminoetatik bat sakrifikatu behar da, interes nagusiaren gauzatzeko beharrezan ez landa joan barik. Hala ere, bitxia da auzitegiak euskaraz jarduteari uko egiten baimentzeko –benetan auzigai–, lotura bat bilatzea gainontzeko alderdien defentsagabeziaren eragozpenarekin. Zeren alderdien defentsak, kontraesanekoak, eta prozesu-armen berdintasunak, noski, eskatu ahal izango baitute itzultzailea –azkenean, Konstituzioaren 3.1. art.aren aginduak agindu, gaztelania euskaldun herritarrak ez baleki, arazo bera sortuko litzateke–, baina horiek ez dira epailearen eskubideak inondik inora. Fiskalak eta salatuak bat baletoz euskara erabiltzeko judiziamenduan, noren defentsak babestuko luke epailearentzat itzultzaile baten eskaera? Gaineratuko nuke alderdia Estatua izango balitz, Ministerio Fiskala eta edozein herri administrazioa barru, eskubide horiek edukita ere ezin izango lukeela hizkuntz koofizialaren ez jakitea aurkaratu. Estatuak bere buruari ezarri diezaioke defentsagabezia hizkuntza koofiziala dakitenak euren funtzionario-taldeentzat erreklutatu nahi ez izategatik, edo taldeko funtzionario elebidunetatik bat esleitu nahi ez izategatik, kontrako alderdiak eskatuta prozesuan?

Hortaz KAK bedeinkatzen du gaztelaniaren “naturaltasuna” prozesu-hizkuntza legez, eta Autonomia Erkidegoko lurraldean

lurraldeko berbeta ofizialaren sorospidetasuna auzitegietan. Ondore logikoak zuzenean daramatza epaile gehienak, mintzaira arotzen jakitetik aparte, espainol elebakarrak izaten jarraitzera.

2.3. Autonomia-eskumenik eza

Antipatikotasunaren azken kapitulua epaile euskalduntzearen aurrean Konstituzioaren ikuspegitik, KAK –Osokoa– 2006.eko irailaren 13an eman zuen 270/2006 epaian irakur dezakegu.

Honetan konstituzio-doktrinak arautzeko eskumendun Zuzenbide Publikoko subjektuen formaltasunean aritzen da, eta ez norbanako hizkuntz eskubideen arauketaren beraren esparruan. Epaiak Estatuko Gobernuak sustatutako eskumenei buruzko gatazka positiboa erabakitzen du, Eusko Jaurlaritzako 117/2001 Dekretuaren, ekainaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justiza Administrazioako hizkuntza-normalkuntzarako neurriak finkatzen duenaren zati handi baten kontra, eta ardatzean gaitzestekoa da, araudi horren 7.1. art. eta 3. xedapen gehigarria deuseztatu arren.

Ezaguna da bereizketa, lehenik botere judiziala –epaile bakoitzarena–(1), alboan botere horren gobernu gailurrean BJK– (2), biak bakar eta bateratuak eta estatu-eskumen erretserbatua Konstituzioko 149.1.5. art.an, eta aparte justizia administrazioa (3), azken hau jurisdikzio-ahalgoaren eskudunen eta euren burujabetasunaren “muin gogorraz” kanpoan geratzen diren pertsona eta materia baliabideen multzoa, zeinetan mugarrizten baitira, ez era aise askoan, alde batetik justizia administrazioa esanahi hertsian, estatu-eskumena (3.1), eta bestetik justizia administrazioaren administrazioa, Autonomia Erkidegoen esku gera daitekeena, nahiz eta askatasun osorik gabe (3.2). Justizia administrazioen funtzionarioen estatu-taldeentzako plantilla eta lanpostuen zerrenda arautzeko eskumena jaso ahal izan du Autonomia Estatutuan Euskal Autonomia Erkidegoak, justizia administrazioaren administrazioa bezala, eskuraezina zaion funtzionario horren “status” juridikoaren muin erkidea errespetatuz, BJLOak unean uneko taxutzen duen eran.

Sententzia honek baieztatzen du Euskadiko justizia-funtzionarioen hizkuntz gaikuntzari eraientza juridiko berezi bat emateko eskumena duela Erkidego Autonomoak BJLOko 530. art.a hurratzen ez badu, eta lege-arau honetan berbeta koofizialaren ahozko zein idatzizko ezaguera meritu gisa ez ezik, baita lanpostuan sarre-
ra izateko ere *“bete behar diren funtzioen izaerari dagokionean eta horrela lanpostuen zerrendetan xedatzen bada”*, eta oro har, arrazoia eta neurria haztatuz, funtzio publikora sartzen ez oztopatzeko hiritar batzuei kausarik gabe (horregatik, lege manu ezereztatu bakarra eskumengabezia egoitzirik, hizkuntz eskakizunen betebeharra lanpostuaren ezaugarri funtzionalek besarkatu barik, euskal gizartearen euskararen jakitea garatu ahala epealdi zehatzetan ezartzen zuelako da).

Funtzionarioekin onartzen den aldean, garrantzitsua epaileen esparrurako era arrakastatsuan erasotzen zen beste arauan datza. 117/2001 Euskal Dekretuko 3. xedapen gehigarriak zera zioen: *“Epaile eta magistratuei... dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiak edo Justizia Ministerioak hizkuntza normalkuntzaren alorrean sinatutako edo sina ditzaten hitzarmenetan, 2., 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak hartuko dira kontuan”*.

Eta deigarria da xedapenak arretatzen zuen deuseztapena, horrela esateko, zeharo ekidingarria zen, ezbairik gabe, berehalako ezarpenik ez zeukan manua baitzen, eta Eusko Jaurlearitzak estatu-erakundeekin hitzartu behar izango zuen gerokoaren menpe baitzegoen. Hala eta guztiz ere, aipatutako epaile-botere eta mamiazko justizia administrazioa, eta justizia administrazioaren administrazio *“autonomikoki eskuragarriaren”* bereizmenaren dogmatismoari jarraituz, nola epaileak ez baitaude Erkidegoko eskumenak okupa dezakeen eremu subjektiboan, –idazkari eta fiskalena ere ez–, inkonstituzionaltasuna aldarrikatzen da. Esanguratsua benetan, KAK behin baino gehiagotan sahiestu baditu prebentziozko erabakiak –horretara joz aparteko botuak, Gay Montalvo, Pérez Tremps eta Sala Sánchez jaunena–, orain estatu-eskumenaren aldeko militantismoa hobestea, hain ukigaitza epaileen *“statusa”* baita. Autonomia-Erkidegoak, orduan, ezin espero ere dezake epaile-

ahalmenaren gobernuarekin ituntzea epaileen nolabaiteko euskalduntzea, ez eta Erkidegoan araututako hizkuntza-eskakizunik kontuan hartu.

3. HIZKUNTZA ETA PROZESU ESKUBIDEEN BEREIZMENA

Jarrera ezberdinak errepasatuta eta Konstituzio Auzitegiak hautatu eta sendetsi duena jakinda, suertatzen da nahasmenduren bat, arriskutsua dena, muturrekoek probetxu ezbidetzkoa atera dutelako, eta egoera aldatzeko erantzukizuna nori leporatzea okerbidean jarri duelako.

Ikusi dugun legez, Euskadin epaileak, orain eta egundo ere, euskara jakitearen ezin eskatuzkoaren jarrera ofizialean, alderdien defentsaren eskubidea agertzen da, eta euskal patetismoaren aldekoek epaile gaztelaniaz elebakarrak auziperatuaren babes judizial eraginkorra urratzen duela sostengatzen dute. Modu horretan maila berean kokatzen dira eleaniztasun ofizialdu batean aintzatesitako eskubideak eta prozesu-eskubide zehatzak. Hala ere, bistan dago alderdiak edo bere abokatuak euskara hautatzen badute auzitegian adierazbide gisa –Euskadiko auzitegi batean lege oztoporik ez dena eta eraginkortasun osoa dena–, berez ez duela defentsa eskubiderik hausten, itzultzaile baten erremediora jo denean, eta bistan dago, mintzaira koofizialaren ezjakina den epaileak itzultzailearengana jotzeko ez du babesik bere defentsaren eskubide existentzibakoan.

3.1. Hizkuntz eta prozesu eskubideen disezioa

Argia da dikotomia:

1. Hizkuntz eskubideek legeria formalaren esparruan jokatzen dute, bidezko prozesu baten eskubidea soilik materiazko esparruan zaurtu ahal den bitartean, egitate bidez, kasu zehatzetan, eta haztapen hipotetikorik gabe.

2. Konstituzio doktrinaren beraren arabera ofizialtasunaren estatutu juridikoa ez dago ezarkuntza sozial errearen menean (esate

baterako, Ataunen eta Lanestosan bera da, euskararen papera, mendeetan, hain ezberdina izen delarik). Hautu politikoa da, hala kulturazkoak nola identitatezkoak diren eskakizunetan oinarrituta. Defentsagabezia prozesuan, aldiz, bidezko prozesuaren eskubide subjektibo konstituzionalaren jabeari ezartzen zaion defentsaren defizita da, sekula ezin presumitu daitekelarik, ez eta zigortu afektatuak onartzen denean edo aitzakiazko defizita denean.

3. Halaber, hizkuntza-eskubideek dakarten exijentziari erantzuteko betebeharra botereari bere orokortasunean dagokio, eta epaileen kasuan, botere judizialaren gobernuari, eta ez epaile edo bakoitzari banan-banan hartuta, eta ez da berehala bete behar, mailaka baizik, elebitasunerako bidea ez delako egun bateko kontua. Bestela, epaile –organo bakoitzak prozesu– eskubide konstituzionalen urratzea baztertu ahal eta behar du, eta euren babes ezin izan daiteke arian-arian lortuko den gauzarik, bet-betan lortzeko modukoa, estakururik gabe entzunaldiaren falta edo alderdien ezberdintasunaren aurrean, defentsagabezia eragiten badu (BJLOko 238.3. art.a, eta 84/86, 155 eta 246/88, 145/89, eta 181/94 KAaren epaiak, besteak beste).

Epaile-babes eraginkorrak, era abstraktuan, ez du behartzen epaileak Espainiako hizkuntz koofizialak jakin ditzala, Konstituzioko 24. art.aren bermearen mamiazko edukian, hizkuntza-eskubideek eratoritzen baitizkiote betekizunak prozesu baten epaileari, Erkidego Autonomoko epailetza guztiari baizik. Ondorioz, itzultzaile egokiak doan, defentsarako letradu profesionalaren laguntzaz –gaur ez dago abokaturik gaztelaniaz baino hobeto jardun ahal duenik euskaraz–, eta euskaldunak ia beti epaileari, fiskalari edo idazkariari ulertu diezaiekena elebidunak izanik, gaztelaniaren erabilerak auzitegietan euskeraz aritzea nahiago duen herritarraren aurrean ezin hauts dezake “per se” epaile-babes eraginkorra, epaileak euskara jakin ez edo txarto dakiela eta, zertzelada gehienetan.

Mailen katramila, berez, BJLOko 231.2. art.aren edukian agertzen da. Epaileek Autonomia Erkidegoko berezko hizkuntza ofiziala erabil dezakete –nahiz “naturala” gaztelaniaz erabiltzea da–, “*baldin eta ezein alderdietatik batek egingo ez bada, hiz-*

kuntz hori ez jakiteak defentsagabezia ekar diezaiokeela alegatuta”. Agerikoa da hemen arauak presumitzen duela defentsagabezia, eta teorikoki berdin-berdina izango da jardun judizialak itzultzea norako batean, euskaratik gaztelaniara, eta osterantzean, gaztelaniatik euskarara. Nire ustez, hizkuntza koofizialak ez du sorospidea izan behar, eta ez da nahikorik izango alegatzea euskararen ezjakitea Euskadiko auzitegi batek gaztelaniaz jardun dezan halabeharrez, norbere defentsaren kaltea erakutsi gabe. Gauza bat da itzuli beharra ezjakinarentzat, eta zeharo ezberdina prozesu-hizkuntza inposatzea prozesu-eskubide baten urratzearen akiakuiluaz, egiaztatu barik.

Euskadin ez da aferatsu mintzaira amakomunik ez izatea, denok eskolatuak izan baikara gaztelaniaz, geurezko mintzaira erabiltzeko eskubidearena baizik, baieztapen identitarioa bezala. Euskalduna, gutxiengo elebidun gisan, ez da mespretxatua, ez eta kultur goi-mailan dagoen etnia batean integratu irrikan dabilen taldea. Orduan bereizkeriaren aurkako babesia ez da aski. Gutxiengo boluntarioa da, hedaduran, baliabide positiboen bereizketa eskatzen duena, historian zehar egoera diglosikoa gainditzeko, bere ezaugarri bereziengatik eta eleaniztasunaren beraren balioagatik. Espainiako Konstituzioko 3.1. art.ak ezarri zuen Estatuko hizkuntza ofiziala gaztelania, espainiar guztiek hura jakiteko betebeharra, eta erabiltzeko eskubidea dutelarik, eta gero 3.2. art.ak Espainiako gainerako hizkuntzen koofizialtasuna ezartzekoa Autonomia Estatutuetan utzi zuen. Euskal Estatutuaren 6.1. art.ak jaso zuen ahalmena, gutxiengo euskaldunaren bereizketa positiboaren desirari erantzun zion, eta lurraldetasunaren hautua egin zuen. Zehazkiago, lurraldeka mugatutako eskubide subjektiboa da hizkuntza koofiziala erabiltzekoa Espainiako Autonomia Erkidego zenbaitetan, gaztelaniaz aparteko hizkuntza hautatzeko eskubidea ez baita pertsonalitate-eskubidea erresuma osoan, ez eta ofiziala berez lurralde batean, ez baitago lurralde elebarrak gaztelaniazkoak ez badira. Ordudanik Euskadiko Autonomia Erkidegoko herrialde-tako toki guztietan ofiziala da euskara, elebidunak gutxienak bagara ere, eta horregatik, botere publikoen berbeta ofizialen erabilera –auzitegiarena barne–, euskal norbanakoaren aukera linguistikoaren eskubideak baldintzatzen edo mugatzen du.

3.2. Hurrentasunaren kaltea itzulpenarekin

Defentsagabezia ez datzekio epailearen hizkuntza koofizialaren ezjakintasunari, baina horrek ez du esan nahi prozesu konkretuetan ezin ager daitekeenik epailearen hurrentasun materialaren ezagatik, alderdi, lekuko edo aditu baten komunikazioa jaso bazuen epaileak interpretari baten bitartez. Hurrentasunak ez du distantziaren gabezia esan gura, bitartekotasunaren gabezia baizik, eta definizioz, itzultzailea bitartekari bat da. Koxka ez datza ahozko edo idatzizko mezuaren distortsioan edo zehaztasun faltan, garrantzitsua izanda ere, mezuaren konkomitante den guztian baizik, fraseologia, esaera bereziak, adierazpen moldea, etabar. Xehetasun horiek erdiestaltzen dira epailearengandik hurbila frogaiturri pertsonala ez denean, itzultzailea baita (norberak antzesten du eta interpretariak berrantzesten du), gertakarien dekantazioa aldaraziz.

Interes nagusiko arazoa da hau, Bizkaitar Entzutegiko Lehen Ataleko 2004.eko urriaren 1aren autoan sakonki jorratzen duena, eta hemen bakarrik apuntatzen dut.

Kontuan hartu behar da itzulpen zerbitzuak erdaratzeko auzitegietan beharrezkoa izaten jarraituko du, herritar askok, bertoko zein kanpokoak, euskaraz jakingo ez dutelako, epaileak euskaldun osoak izan arren. Zerbitzu horiek indartu eta hobesteko ahaleginak egin behar dira, baina ez epaileengan pentsatuta, hauek erdaldunak diren bitartean, irregulartasun anitz jasango baitira euskarari atxikitzen duten alderdi eta abokatuek, hurrentasunari pairamena agerikoa utziz: a) Idazki eta agirien itzulpenetan beti ematen dira atzerapenak, normalean hilabetetakoak; b) Ahozko jardunetan, alderdiek, lekukoek eta adituek ia kasu guztietan itzuli ahal izateko bat-bateko etenarazpenak behartzen dira; c) Abokatuen euskarazko alegazio-txostenei distortsia txertatzen zaie, azalpen modua, tonua, enfasia, isilune kontrolpekoak, azpimarraketak, eta adierazmolde tipiko batzuk galduz; d) Itzultzaileek legelariak ez direnez, zati guztiz garrantzitsuak ezin ditzateke ondo itzul edo zuzenean ez dituzte itzultzen; e) Abokatuen duintasun pertsonala ez bada, duintasun profesionala iraintzen da maiz, hertsatze edo tentsioa umiliagarria ezarriz, bere hautua maiseatzen, denontzat hain erraz izanik

erdara arrunt baten jardun izana (hautua baita, abokatuak ia beti aiseago daki-eta erdaraz).

Epaitzari dagokion legediak, orain direla hogeitabost urte konstituzionaltasun blokeak, bereizketa edo desberdintze positiboaren alde, ezarri zuen herritarren aukera linguistikoaren eskubi-dea ukatzen da behin eta berriz. Hori ezin konpon dezake prozesuan epaileak banan banan, eta ez dago bere esku konpontzea, baina ez du atsedetik ere hartu behar defentsagabeziaren interdikzioaren betepenean hurrentasun materialaren kalteagatik, mintzaira koofizial baten itzultzailea bere buruari jartzen baldin badio.

4. PROPOSAMEN ERAGINKORRIK BIDERA DEZAKEGU?

Euskadi elebidun batentzat justiziagintzan epaileek eskeini behar duten zerbitzua, jurisdikzio-ahalgoa egikaritzekoan, hain antipatikoa izanik, eta konstituzio doktrinak sendetsita, badago soluziobiderik?

Lehenik eta behin, euskaldun sinpatikook euskara diglosiatik suspertzeko aurpegi atsegingarriaren neurrietan fidatzen gara, behartze edo zehapen neurrietan bainoago. Azkenean ondoreak direnak diren, merezi izango baitu. Eta legelariok izanda, euskara goimalaratzeko teknolekto juridiko gisa, epaileei dagokienez, aurreko abiapuntua gure antolamendu judizialak bete behar duen konstituzio-funtzioa zein den gogoetatzea eta gainontzeko dena azpian jartzea da: herritarren, euskaldunen zein erdaldunen, eztabaidak baketan konpontzea legerian onetsitako eskubide eta askatasunentzat epaile-babes eraginkorra bermatuz. Ez dago, bada, hizkuntz politikarik helburu hori azpira dezaketarik.

Hori horrela izanik, koofizialtasunak dakarkio betekizuna Herri Administrazioari Euskal Erkidegoko leku guztietan, eta justiziagintzari ere administrazio bat izanda, non epaileek estatu-bote-rea egikaritzuz zerbitzu publikoa eskeintzen baitute, gainera prestazio-zerbitzu bat. Euskaldun herritarrek gizarte harremanetan euskaraz, bertoko berbeta ofizialaz, baliatzen badute ohiki, inola ere ezin menpera dezake hizkuntza-politikak funtzio jurisdikzionala baldin

eta euskaldun epaileak, eta haratago, epaile-hizkera kozkortzeko gai direnak, sustatzen baditu. Halako moldez justizia administrazioan euskaldunek euskaraz erlazionatu ahal dezaten epaileekin, jakina, alderdi erdaldun hutsentzat edo euskal antipatikotasunen aintzindarientzat itzultzaileak utziz.

Hizkuntz eskubideen bermatzeaz ari naiz, eta zeharka, kasuan-kasuko prozesu-eskubideen urratzerik baztertzeaz.

Nolatan bada sustapen hori? Eskaria gehitzen eta legegintzan esperantzarik jarri gabe, mailakako hizkuntza-zirkuituen eredia Euskadiko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salari eskatzen. Eredua sendotu ahala, eskariaren poderioz, lege-aldaberrikuntzaren aldeko aldarriak atarramendu ona izango du.

4.1. Auzitegietako euskaren bakantasunaren arrazoibideak

Badakigu Euskadin diharduen epailetza bapatean euskalduntzeko dauden arazo kontzeptualak, mintzaira normalizatu gabearentzat, baina euskara eta erromantze-hizkuntza koofizialak auzitegietako hizkuntza legez baldintzatzen dituen inguruabar asko ere dago, eskariaren ahultasuna finkatuz. Nabarienak aipatzeko:

1. Autonomia-Erkidegoaz gaineko esparruko gatazken auzi-paperak, azkenik Erkidegotik kanpora bidaiatu eta erdarara itzuliko dira. Etsenplua: 2004.eko urriaren 1eko Entzutegiko Lehen Atalean eman genuen autoa, inkonstituzionaltasunaren auzia planteatuz, euskara hutsez idatzi zuen magistratu txostenlariak, miresteko esfortzu hori gero erdaratua izan zezan.

2. Estatuko legedi eta araudi gehienak ez dauka itzulpenik euskaraz, Auzitegi Goreneko jurisprudentzia gaztelaniaz sortzen da eta ez da euskaraz ernarazten doktrina zientifikorik, bibliografia juridikoa ezin mugatuagoa gaur egun izanda. Esaterako, izkribu honetan glosatu ditudan norma eta epaien zati guztiak, Euskal Dekretuarenaz beste, neuk –baldreski– euskaratu behar izan ditut.

3. Prozesuetan normalean partehartzaile pila dago, epaileak, idazkariak eta alderdiak utzita, prokuradoreak, abokatuak, lekukoak,

adituak, eta nola ez, funtzionarioak. Zaila izango da berezko hizkuntza ofizialaren ezagutza-kuotarik garaienetara iristen diren Komunitateetan esku sartzen duten guztiak hizkuntza hori ezagutu eta behar den bezala jabetzea, askoz zailago orduan Euskadiko auzitegietan. Gaztelania, nahitaez, hizkuntza amakomuna da, eta denok dakigun berbetara jotzearen ondorioa agertzen da.

Ekin gabe doa, euskararen erabilera urria auzitegietan baldintzatzen duen inguruabarrik indartsuena Espainiako berbeta koofizialen epaileek duten ezjakintasuna da, baina legearentzat (BJLOko 231 eta 341. art.ak) epailea Euskadin jardutean euskalduna izatea komenigarria da, soil-soilik, eta horretan agortzen omen da dena, hauxe da, euskaldunen eskubideek ez dute epaileengan egiazko eginbeharririk, KAK bedeinkatua.

Esan dezakegu, Euskadiko auzitegietan euskaraz atenditu eta ulertua izateko eskubidea ezin gera daitekeenik epe mugagabeen askietsi barik, eta hogeita bost urte, dagoeneko, Konstituzioak Espainiako Estatuaren izaera eleaniztuna aldarrikatu zuenez gero, justiziagintza Euskadin, hala ere, izaera edo errealitate horretaranzko bidea urratu izan barik. Gainera dezakegu hizkuntz eskubideak hutsik izan dira prozesuan egikaritzen saiatzen direnetan, eta espainiar herri-tarren arteko trataera-berdintasunarekin luzeegi daramala.

Baina ihardets diezaigukete Epaile-Boterearen batasunaren printzipioa eta justiziaren zerbitzu publikoaren kalterik gabe, erromantze-hizkuntza koofiziala duten Komunitateetan epaile elebidunen kuota altuak lortu direla, trauma berezirik gabe. Egia da, komenigarritasun eta ez betekizun mailan, egokitze-izapide bat neurri pizgarri txiki batzuek elebitasuna arian-arian ezartzeari aurre egin dakioke, nolakoak ondoreak diren. Gauza da Katalunian, Valentzian edo Balear Iretako Autonomia Erkidegoan, epaile eta magistratuetatik 1.120 baino gehiago katalanaren –edo enparauaren– meritua aintzatetsia dutela, eta 195 baino gehiago galegoarekin Galizian, ia lurralde haietan diharduten guztiak. Euskadiko Autonomian eta Nafarroako Foru Erkidegoan, aldiz, ez dakit dozena eta erdia garen meritudunok (zalantzatsua da prozesua gaztelaniaz bezain ondo euskaraz burutzeko gauza garen).

Orduan, euskararen aurka epaile-hizkuntza izateko bilakaera honetan eta eskariaren kaltetan eragozpen gehigarriak antzematen dira.

4. Euskaraz dakien (herritarren lautik batek) eta baliatzen duen (askoz gutxiago) biztanlegoaren portzentaia oraindik ez da maila kritikora ailegatu (euskara erabiltzen duen orok erdara baitaiki halaber).

5. Euskal gatazka politikoa. Ez dut horri buruz ezer ganorazkorik esango, baina alde batetik, epailetza botere kolonial baten bezalako deslegitimazioak, eta bestetik aspaldian terrorismo bihurtu zen burruka armatuaren erasoak, ez dituzte Euskadiko gazteengan –oraintsu unibertitate-ikasketak euskaraz hein handi batean ahaltsunak izan dituen garai hauetan– sorrarazi epailea izateko bokaziorik prezeski, baina bai eragin dituzte epaileen –gehienak kanpotarrak– plantilaren mugikortasun amaigabea. Euskara, jakina, identifikatu da abertzaletasunarekin, eta hain da egia duda guztien gainean dagoela abertzalerik gabe gaur egun euskara hizkuntza hildakoa izango zatekeen, nola egia ere askotan erabili dela justiziagintzaren kontra espainola delako. Euskadin lan egiten duten epaile batzuek auzitegietan euskara arbuizatzeak eta abokatu batzuek euskara iskilu jaurtigarri baten moduan prozesuak katramilatzeak erabiltzeak elkarri elikatzen diote. Jakina, ondorea izan da puntu honetan Euskadiko gehiengo sozialari epailetzan dagokion gutxiengo nimiñoa, eta alderantzizkoa. Ez badira maitekiro tratatzen bertoko epaile euskaldunak –“zipaioen” estigma, kasu–, gutxiago ere onartuko dira arrotzak gure errealitate soziolinguistiko eta kulturalera integrazio saioak.

Hori dela eta, estatu-legegintzatik eta epaileen eskaintzatik ezin dugu gehigirik itxaron. Eskatu bai, biziki eskatuko dugu lege organikoaren aldakuntza, eta epaileen euskalduntzearen alde denok bat etorri beharko dugu, agian ez Autonomia-Erkidegoko epailetzan sartzeko hizkuntza koofizialaren ezaguera zabala betepen gisa, erabateko lehenespen gisa baizik. Baina aldaberritze eraginkor baten esperantza mendreana izanik, eta eskaintza gabetua, eskaria gizontzea da jomuga.

4.2. Zirkuitu euskalduna

Euskarazko justiziaren eskaria gizentzeko pizgarririk ez dago, baina horren gehikuntza, abokatueen bultzadaz batez ere, aurrerabide bideragarri bakarra dela deritzot. Azken batean, nahimenaren eginahal bat da. Eta eskariaren jauziarekin euskaldun zirkuitu judizial eratu behar da, dauzkagun baliabideak ustiatzen. Aurrera egiteko formula pragmatiko hau boterearen gobernuarentzat joandako garai gozoagoetan kausitu zen baina Bilboko Gobernu Salan proposamenak porrot egin zuen.

Eragozpena ikusi nahi izan dute batzuek Konstituzioko 24.2. art.ak aipatzen duen “legeak aurremugatutako epaile arruntaren eskubidean”, baina zirkuituak ez du ukitu ere egiten epaile-organoen eskumena –horrexegatik erantzuna euskaraz aurkezten bada ezin da epaitegitik atera auzia, demanda gaztelaniaz bazen–, banaketaren arazoa baita –eskumen berako organuen arteko lan banantzea–. Eta banaketaren irizpidea extrajuridikoa da baina objektiboa: demanda, salaketa, atestatua, eskabidea, etabar, euskaraz bada, organo judizial konkretu bati banatuko zaio.

Zirkuituaren ideia antolatzeke aldaera anitz izan daitezke. Nirean, epaitegietatik bat, eta organo bilduetatik salaren osaketa zehatz bat, jurisdikzio-ordena, lurralde-mugabarru eta gradu bakoitzean, urtero identifikatu beharko da jasotzeko euskara hutszeko hasiera-idazki guztiak, eginahalean. Organo identifikatu horietan, epailearen hautaketa pertsonala sahiesteko, modu aleatorio batean, zerrendatutako euskaraz aritzeko epaile meritudun titularren artetik –organokoa edo ez–, epaiketaldirako beharrezkoak badira eta hizkuntz eskakizuna beteaz ordezkoen artetik, izendatuak izango dira euskarazko prozesuetarako. Adibidez, lan-arloko hamar epaitegietatik bat izango zen Bilbon euskal zirkuituarena, eta irazpenaren demanda bat tarteratzen bada erregistrotik horri banatuko litzaioke, gero hamar epaitegietako magistratu titularren artean hizkuntza koofizialaren merituduna badago izendatua izango da prozesurako –bere epaitegian beste gaztelaniazko irazpenaren demandaren abonuan–, edo bat baino gehiago egotekotan tokatzen zaiona, edo ordezko euskalduna. Gero suplikazio helegi-

terako Lan-arloko Salan, berdin izango zen epaimahai bat zirkuituan. Zirkuituko auzitegietara joan zitezkeen lehentasunez hizkuntza-eskakizuna bete duten funtzionarioak, eta “kargatuko” dira euskaldunez. Hasieran toki gutxitan moldatuko da saiakuntza hau, eta itzultzaileek jarraituko dute ezinbestekoak izaten epaileentzat ere, baina denbora igaro ahala, arrakasta lor daiteke. Jakina, euskaldun idazkari eta fiskalak esleitu beharko zaizkio zirkuituari, Justizia Ministerio eta Fiskaltzarekin itunduz.

Horrela, pixkanaka herritarrak edo abokatuak lagun, aukera dezaketen mintzaira ofizialean komunikatzeko gai diren justiziagintza mota bat eraikitzen joango da.

4.3. Ondorio zenbait

Amaitu gura nuke hiru ondorio aurkezten, niretzat giltzarri direnak egoera tamalgarri honetatik irteten asmatzeko:

1. Helburua izan behar da Justizian –Botere exekutiboko Administrazioetan bezala–, ahalbidetzea, daukagun lege eta konstituzio-doktrinaren arabera, prozesu osoa euskaraz eramatea, hala nahi izanik hasieran ematen duen alderdiak.

Egia da BJLOko 231.2. art.aren interpretazio baten arabera, euskaldunok ez daukagula bermatuta auzitegietan prozesu bat euskara hutsez eramaterik, hasieratik bukaera arte, alderdiren batek euskaraz ez badaki. Manu hori aldatzeko eskaera aldarrian utzi gabe, edozein modutan ere, konturatu behar dugu epailearen erabakia dela prozesu-hizkuntza koofizialeetatik zehaztea. Eta prozesua abiatzen duen alderdiak euskara aukeratu badu, epaileak jardungo da gaztelaniaz soilik gainontzeko alderdien defentsagabezia dakarrela baldin ziurtatzen badu, eta ez alderdi edo abokatu baten elebakartasun hutsegatik edo defentsa-kalterik ekar dezakeela alegazio hipotetikoagatik.

Euskarazko zirkuituak, lege agindua direna direla, “naturaltasuna” datzekio aukera-hizkuntza prozesu-hizkuntza izan dadin bermatzeko, eta epe ertain baten buruan, alderdi eta profesional euskaldunen artean gaztelaniarik gabeko prozesu osoak ikus ditzan-

kegu, eta alderdi erdaldunen hobespenak hobespen, epaileari ezin gaitzago egingo zaio defentsagabezia zantzurik antzematea izapidetza osoa elebiz eta ebazpen garrantzitsuak euskaraz egin eta gero erdaratuta ematen badira.

2. BLOak berez ez du aurrikusten herritar euskaldunarentzat auzitegietan eta epailearentzat berarentzat inolako itzultzailerik, ez gaztelaniaz ez eta (Euskadin) euskaraz ere. Ziur asko, euskaldunak elebidunak direla, eta Foru garaietan ez bezala epailea eta euskalduna bateragarria izanda, alderdietatik batek exijitzen ez balu, epaileak gaztelaniaz jardungo lukeela auzietan presumitzen duelako. Alderdi batek edo epaile batek bere kasa –bururatzeko modukoa bada– euskaraz aritzen direnetan itzultzailearen ardura du legeak euskara ez dakiten alderdi, prokuradore, abokatu, lekuko eta adituentzat. Dena dela, Espainiako herritar euskaldunak gaztelania ondo ulertuko ez balu auzitegiak komunikazioa euskaraz emateko beharra leukake. Orduan, itzultzaileak ez daude aurreikusita “per se” epaileentzat, eta teorikoki, epaileak euskaraz badihardu eta ez dakiten alderdiak ez badio aurkaratzen euskarazko jardunari, ez legoke itzultzailearen beharrik Erkidego Autonomoaren barruan –norberak onartutako defentsarik eza, zigor prozesuko hobendunarekin ezarriezina bada, nire iritziz–.

Horrexegatik diot epaileentzat interpretaria ez dela eskubidea inondik inora, euren ezjakintasunaren erremedio bakarra baizik, eta ez dela taxuzkorik epailearen defentsari buruz ezer jotzea.

Itzultzailea alderdi eta prozesuan parte-hartzaile pribatuen eskubidea da, eta euskarazko zirkuituak, prozesu-hizkuntza euskara izanik, itzulpen lanek euskaldunei sortu ohi dizkien oztopo edo gatazka guztiak, izatekotan, geratuko dira profesional erdaldunekin doazen demandatuentzat (abokatu euskaldunak ez du etenka hitz egiteko agindurik jasoko ahozko jardunetan, euskaraz aurkeztutako dokumentuak hartu eta tramitatuko dira erdarazkoak bezain arin, eta erdarara itzulitakoa, zertan balioztatu behar barik, eskatuko da presaz, etab.).

3. Epai-zirkuitu euskaldunak antolatzeke eta martxan jartzeke ezin pentsa daiteke euskara hutsean burutu daitezken epaiketa-

rako organoak izateaz bat-batean, baina hori da helburua, eta horretarako epaile euskaldunak ugaritzea nahitaezkoa duen.

Mintzaira gutxitu duten erresumako beste eskualdeetan epaile gehienek ikasi dute eta badakite, sekula auzitegitan erabiltzen (Valentziako Komunitatea, kasu) ez den arren, baina Euskadin aurreko problema daukagu: ikasi eta dakien apurra epailetzan.

Aipatutako Hizkuntzen Europako Gutunak baduka halako kontrol mekanismo bat, Adituen Komite batek osatzen duena, zeinak puntu guztietatik ikertuz gero, Eskualdetako eta Eremu Urriko hizkuntzen benetako egoera aztertu, honen berri Estatu partaideen Ministroei luzatu, eta egoeraren balorapen bat eginez, behar izanik, aholku betegarri batzuk ematen baititu. Eta Espainiako Adituen Txosten honetan oinarrituz, Europar Batasuneko Ministroen Komiteak, 2005ko iraileko 21an, gomendio batzuk eman zituen, Gutuna betearazteko asmoz, Espainiako Gobernuak irunzkinak kontuan hartuta. Eta Justiziar buruz azpimarratzen zuen bakarra (Nafarroa aparte) zen bermatu behar zela Gutuneko 9. artikulua dagokien Autonomia-Erkidegoetan Justizian lan egiten duen pertsonalaren portzentaia egokia hizkuntza koofizialen ezagutza praktikokoaren jabe.

Horixe erronka, zelan handitu, eta ez epemuga heldugaitz batera, epaile euskaldunen “portzentaia egokia”. Gaitasuna ukatzen jurista erdaldunei Euskadin epaileak izateko? Euskadiko bailara batzuetako epaitegitan euskara hizkuntz ofizial erabili beharrekoa legezztatzen? Ezetz uste dut.

Gure antolamendu juridikoan, nagusitu duen interpretazioan behintzat, ez daude hizkuntz eskubideak nahiko babestuta, eta aldaketak galdegitea zuzena da, baina nik ez dut ikusten horretatik konponbide lasterra dakarrenik, eta ez lortzeko ahalbide murrizta delako, lortuta ere arazoa soziolinguistikoa delako baizik, non eta euskara beraren egoera eta botere politikoaren gatazka agerian baitaude. Espainiako Konstituzioak akats eta orijinaltasunik biribilena gaztelaniaren ezagutza betebeharra bihurtzea da eta berbeta ofizialaren lurraldetasun printzipioarekin nahasmena, eta ez dirudi

imitatu beharko dugunik –hainbatetan erratubide espainolak euskaldundu ditugun legez– euskararekin Euskadin.

Euskaldun legelariak epaile gisa euren lurrean lan egiteko suspertzean datza koxka. Elementu suspergarri horiek jorratu behar dira, tradizio falta eta giroaren aurre. Gero, euskarazko “justizia-eskariaren” hazkondeak eta epai-zirkuituak elkarri sustatu eta garatuko dira, euskaldun abokatuak, unibertsitate-mundua eta auzitegiak inbrikatuz, euskal gizartea eta bertoko epailetzaren arteko arrakala itxi arte etorkizun hurrenean.

Edorta E. Herrera
Magistratua